PLT-C-2025-0030
JU/ld

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, URGARRIAK ZABALTZEKO 6 M^3-KO MAKINA BAT, AZPEITIKO LANTALDEAREN BASEAN ZERBITZUA EMANGO DUEN 6X6 KAMIOIAREN KAKO JASOTZAILEAREKIN AKOPLATZEKO EGOKIA DEN EGITURAREN GAINEAN MUNTATUA, HORNITU ETA ESKURATZEKO, ETA ZABALTZEKO MAKINA ZAHAR BAT BESTERENTZEKO

(7-SM-89/2025)

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratuaren objektua da urgarriak zabaltzeko makina bat (6 m^3) hornitzea. Makina kako jasotzailearekin (beso askotako kako) akoplatzeko egokia den egitura batean muntatuta egongo da, agiri honetan jasotako ezaugarri teknikoen arabera. Gauzazko ordainketaren zati gisa, hemen deskribatzen diren ezaugarriak dituen 2005eko 5 m^3-ko zabaltzeko makina bat entregatuko da.

2.- HORNITZEKOA DEN ZABALTZEKO MAKINAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Toberaren bolumena: 6 m≥
- Bahetzeko sareta duen tobera, eta trinkotzearen aurkako egitura eta mekanismoa, zintaren sisteman txertatutako tranpol birrintzaile automatikoaren bidez.
- Atzeko estalkia eta olana, zorutik irekita.
- Gatza garraiatzeko zinta, tranpol birrintzaile automatikoa duena. Altzairu herdoilgaitzezko xafla gaineko zinta.
- 2.400 l-ko gatzun-tangak. Tanga horiek zabaltzeko makinaren alboetan egongo dira, eta gatzuna diskoaren sarreran hezetuko da, nahasketa ganberan.
- Eragintza-sistema hidraulikoa. Konexioak zabaltzeko makinaren aurrealdean.
- Altzairu herdoilgaitzezko zabaltze diskoa, karkasarekin, nahasketa ganberarekin eta likido sentsorearekin.
- Diskoan bertan integratutako talken aurkako diskoaren sistema erretraktila, oztopo bat kolpatzen denean hura baskularazten duena, eta, oztopoa eta jasotzen duen presioa gainditu ondoren, automatikoki bere posiziora itzultzen dena. Kabinan abisu-seinale bat agertuko da.
- Zabaltzearen zabalera 2 eta 12 m bitartekoa da, metro bateko tarteekin.
- Zabaltzeko erregulagailua, aldakorra m^3-ko 5/40 gramo bitartean, 5 gramoko tarteekin.
- Zabaltzea kontrolatzeko sistema kommutagarria (eskuzkoa/automatikoa).
- Sentsoreak zintan, zabaltze diskoan eta ponpa hidraulikoan, informazioa zentralitan jasoz. Matxurak hautematea eta autokalibratzea.
- Toberara iristeko eskailera.
- Bi V-2 birakari eta lan-argia diskoan.

ACTA58f50853-43d2-4150-9978-83e042fd61c7

- Ibilgailuko argiekin kommutatutako freno-argiak eta keinukariak dituen atzeko spoilerra. Gainera, lan-argia ere izango du.
- Kako jasotzaile bidez desmuntatzeko sistema, sistemaren azpian xafla duena, korrosioa saihesteko.
- Galtzadaren tenperaturaren araberako zabaltze-sistema automatikoa.
- Kabinan ukipen-agintea eta koloretakoa, funtzio guztien kontrolarekin. Muturreko tenperatura hotzekiko erresistentea.
- Kamioiaren abiadura-seinalea kamioiaren takografotik hartzen da, urgarriaren zabaltzea eta zabalera abiaduraren araberakoak izan daitezen.
- Toberaren korrosioaren aurkako tratamendua duen pintura, granailaketa eta hauts-estaldurarekin.
- Barnean hartuko du kabinako agintea muntatzea eta zabaltzeko makina ibilgailura lotzea.

Araudi eta zuzentarau hauek betetzea:

- 2006/42/EG: Makinen Zuzentaraua (makinen segurtasuna).
- UN Regulation 10 2014/30/EU: Bateragarritasun elektromagnetikoa ibilgailuetarako eta ibilgailuetan muntatutako ekipo elektronikoetarako.
- 2014/53/EU: Irrati eta telekomunikazio ekipoak
- 2014/35/EU: Behe Tentsioko Zuzentaraua (segurtasun elektrikoa)
- EN 16 811: Neguko mantentze lanetarako zabaltze-sistemak (gatza, agente urgarriak)
- EN ISO 13 857: 2008. Segurtasun tartea leku arriskutsuetara sartzea eragozteko
- EN 15 597-1: 2009. Errepideetan izotz-kontrakoak zabaltzeko sistema finkoak (baldintzak)
- EN15 597-2: 2012. Zabaltze-sistema finkoetarako saiakerak
- EN 954-1: 1996. Makinen segurtasuna. Segurtasunari buruzko aginte-sistemen zatiak
- EN 17106-3-2: 2021. Neguko mantentze lanetarako ekipamendua - Materialak zabaltzeko sistemak
- EN 30710:1990. Makineriarako segurtasun betekizunak eta saiakerak
- DIN 30 728-3: 2005. Neguko mantentze lanetarako dosifikazio ekipoak
- EN 1679-1: 1998. Barne-errekuntzako motor alternatiboak. Segurtasuna
- EN 15144: Errepideak mantentzeko ibilgailuak eta ekipoak (betekizun orokorrak)
- EN 15430-1: Errepideak ekortzeko eta garbitzeko ekipoak
- EN 15431: Neguko mantentze lanetarako zabaltzeko makina (zabaltzeko ibilgailuak)

ACTA58f50853-43d2-4150-9978-83e042fd61c7

PLT-C-2025-0030
JU/ld

3.- TXATARRA GISA BESTERENDU BEHARREKO ZABALTZEKO MAKINA

Schmidt Stratos CE markarekin



Bolumena:	5 m³
Zenbakia:	STB 22753
Mota:	B50-36 WALM
Kokapena:	Makineria parkea

4.- ENTREGATZEKO EPEA

Entregatzeko epea 6 hilabetekoa izango da gehienez ere.

5.- AURREKONTUA

Hornidura kontratua unitateko preziokoa izango da, eta enpresa interesdunek urgarriak zabaltzeko makina bakoitzerako eskainitako prezioa eskaini beharko dute. Kalkulatzen da makina bakoitzaren unitateko prezioa 38.000,00 € + BEZa dela. Beraz, kontratuaren balio zenbatetsia 38.000,00 eurokoa izango da, BEZik gabe.

Era berean, txatarra gisa besterendu beharreko makineria 389,84 €-tan baloratu da. Prezio hori lortzeko, txatarraren kotizaziorako erreferentziazkoak diren hainbat webgune kontsultatu dira. Txosten hau egin den datan, txatarraren batez besteko prezioa 220 €/ tn ingurukoa da. Besterendu beharreko zabaltzeko makinak 1.772 kg-ko pisua duenez, horren emaitza 389,84 € da.

Beraz, eskuratze horretarako aurreikusitako lizitazio tasa 45.590,16 € da, kontratuaren balio zenbatetsiari % 21eko BEZa aplikatuta eta besterendutako balioa deskontatuta ateratzen dena.

Adjudikaziodunari ordainduko zaio 2026ko ekitaldiaren kontura.

EKS | CSV: ACTA58f50853-43d2-4150-9978-83e042fd61c7
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLT-C-2025-0030 EUSKERA.pdf

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

URANGA AGUIRIANO, JON

ET, INSTALAZIOAK
TM INSTALACIONES

Data / Fecha: 2025/11/13 08:13:34

Sinatzailea 2 / Firmante 2:
CAPETILLO ARRANZ, Ane Miren - AB INSTALAZIO ETA EKIPAMENDU ADIMENDUAK // JSC INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO INTELIGENTE
Data / Fecha: 2025/11/13 08:26:35

Sinatzailea 3 / Firmante 3:
ZUFIRIA ZATARAIN, Iñigo - JEFE DE SERVICIO DE CONSERVACION Y SISTEMAS INTELIGENTES
Data / Fecha: 2025/11/13 08:35:23